




SAN SEBASTIÁN
DONOSTIA 2016

2010-2011

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
Orquesta Sinfónica de Euskadi



EUSKADIKO
ORKESTRA



Bilbao

Donostia-San Sebastián

Vitoria-Gasteiz Pamplona-Iruñea

Maiatzak

09-10

mayo

20:00 h.

Concertos nº 2471-2472



Gaurko kontzertua

El concierto de hoy

BIDEGURUTZEAN. Schumann-en bizitzaren azken urteetan, haren egoera mentala nabarmen narriatzen hasia zela konposatu eta hil ondoren estreinatu zen *Biolontxelorako kontzertua* da, beharbada, instrumentu horretarako ordura arte konposatutako obrarik ederrena. Bakarlariaren jarduna elegiazko lirismoz beteta dago eta Dvorákek eta Elgar-ek eredutzat hartuko dute ezinbestean beren kontzertuetarako. Beethovenen *Laugarrenak* ere toki estrategikoa hartzen du haren karreran, itzelezko bi gailurren arteko haran barea balitz bezala, edo, Schumannen hitzetan, “greziar neska gazte eta liraina, bi erraldoi ipartarren artean” jarria balego bezala.

EN LA ENCRUCIJADA. Compuesto en sus años postreros, cuando ya su estado mental comenzaba a dar síntomas de deterioro, y estrenado a título póstumo, el *Concierto para violoncello* de Schumann es, quizá, la más hermosa página compuesta hasta entonces para dicho instrumento. El lirismo elegiaco que tiñe las intervenciones del solista servirá de modelo inexcusable a los posteriores conciertos de Dvorák y Elgar. También la *Cuarta* de Beethoven, obra singular que Schumann definió como “una esbelta joven griega, en medio de dos gigantes nórdicos”, adopta una posición estratégica en su carrera, a modo de sereno valle entre dos imponentes cumbres.

Hemen jarrai ahal izango
diguzu / Siguenos en:

facebook

flickr

YouTube

Y suscríbete al Euskor digital en

www.euskadikoorkestra.es

webgunean izena eman
Euskor digitaal

Testuak / Textos:
Juan Manuel Viana



Egitaraua / Programa

Valentín Zubiaurre (1837-1914)

Ecós de Oiz, para violonchelo y orkestra [9']

(Ramón Sobrinoren edizio kritikoa / edición crítica de Ramón Sobrino,
Ediciones Iberautor/Instituto Complutense de Ciencias Musicales, 2009)

Robert Schumann (1810-1856)

Concierto para violonchelo y orkestra en la menor, opus 129 [23']

- I. Allegro (Nicht zu schnell)
- II. Adagio (Langsam)
- III. Finale: Vivace (Sehr lebhaft)

2

Ludwig Van Beethoven (1770-1827)

Sinfonía nº4 en si bemol mayor, opus 60 [34']

- I. Adagio. Allegro vivace
- II. Adagio
- III. Allegro molto e vivace
- IV. Allegro ma non troppo

Andoni Mercero
kontzertinoa / concertino

Jean-Christophe Spinosi
zuzendaria / director

Johannes Moser
biolontxelo / violonchelo

Euskadiko Orkestra
Orquesta de Euskadi

Babeslea
Patrocina:

Ingeteam

Egitarauari Oharrak

Notas al Programa

Ecós de Oiz, para violonchelo y orquesta

Valentín Zubiaurre - Garai, Bizkaia, 13 de febrero de 1837 - Madrid, 13 de enero de 1914

Pianorako zenbait partitura izan ezik, errepertorio instrumentala bigarren mailan dago Valentín Zubiaurrek utzitako ondare jor-jorian. Logikoa, kontuan izanik Garaiko musikaria 1875ean Madrilgo Errege Kaperako bigarren maisu izendatu zutela. Hiru urte geroago zuzendari izan zen bertan, Hilarión Eslava hil zenean, Madrilgo Kontserbatorioan konposizio maisu izan zuena. Musika erlijiosoak, dagozkion forma anitzenetan (mezak, ofizioak, oratorioak, letaniak, moteteak, letrillak, gabon kantak eta beste hainbat) konpositorearen arreta piztu zuen arlo lirikoan hark egindako lan erakargarriaren ondoren, Madrilen egin zuen aurreneko egonaldiaren eta Erroman egin zuenaren artean Arte Eder Akademiako pentsiodun gisa hamar urte eskasetan sortutako balio handiko hiru operarekin: *Luis Camoens* (1864), *Don Fernando el Emplazado* (1871) eta *Ledia* (1873), azken honen *Preludio* ederra denboraldi honen hasieran eskainia.

Iradokitzaila, Patricia Sojak dioen bezala, “bere jaioterri Garaiko soinuena, eta inguruan dituen mendiena, Oiz mendia, besteren artean”, *Oizko oihartzunak* Zubiaurrek instrumentu solista eta orkestrarako idatzitako partitura bakarra da. 1889an data-tua, bat dator bere garaikide izandako beste konpositore batzuekin giro malenkoniatsuak ondoen aditzera ematen dituen biolontxe-loaren tinbre goxoa aukeratzean, esaterako: Saint-Saëns eta Lalo hurrenez hurrengo euren kontzertuetan (1873 eta 1876an konposatuak) edo Tchaikovsky bere *Bariazioak rokoko gai baten inguruan*, 1877koa. Baina baliteke *Klid* (*Isiltasuna*) obra izatea euskal

Con excepción de cierto número de páginas pianísticas, el repertorio instrumental ocupa una posición secundaria en el amplísimo legado de Valentín Zubiaurre. Algo lógico si se considera que el músico de Garai fue designado en 1875 como segundo maestro de la Capilla Real de Madrid, cuya dirección asumió tres años más tarde al fallecer Hilarión Eslava, su viejo maestro de composición en el Conservatorio madrileño. La música religiosa en sus más diversas formas (misas, oficios, oratorios, letanías, motetes, letrillas, villancicos y otras páginas) acapara así la atención del compositor una vez concluida su atractiva travesía por el territorio lírico, al que contribuyó con tres valiosas óperas nacidas en apenas una década, entre su primera estancia en Madrid y su residencia en Roma como pensionado de la Academia de Bellas Artes: *Luis Camoens* (1864), *Don Fernando el Emplazado* (1871) y *Ledia* (1873), cuyo hermoso *Preludio* pudo escucharse a comienzos de esta temporada.

Evocadora, como apunta Patricia Sojo, “de los sonidos de su tierra natal, Garai, y de los montes que, como el Oiz, la rodean”, *Ecós de Oiz* es la única partitura de Zubiaurre para instrumento solista y orquesta. Fechada en 1889, coincide en la elección del cálido timbre del violonchelo como traductor ideal de climas o ambientes melancólicos con otros compositores coetáneos. Por ejemplo, Saint-Saëns y Lalo en sus respectivos conciertos (compuestos en 1873 y 1876) o Tchaikovsky en sus *Variaciones sobre un tema rococó* de 1877. Aunque quizá la obra que muestre mayor parentesco con la del músico vasco



musikariarenarekin parekotasun handiena duena; bi urte aurretik, 1893an, Dvorák-ek eraman zuen orkestrara, biolontxelorako eta pianorako pieza batekin.

Orkestraren sarrera labur batek (*Andante maestoso*), pizzicatoek amaiera ematen diotenak, biolontxeloaren sarrera prestatzen du, solo pasarte baten ondoren nostalgiaz betetako doinua ematen duena hariaren *sotto voce* lagunduta. Bakarlariak errepikatu egiten du gai nagusi hau, zertxobait aldatuta, zortzikoa gogora ekartzen digun bigarren gaia aurkezteraino. Beste solo pasarte baten ondoren, biolontxeloak berriro heltzen dio gai nagusiari, arpegio sail batekin obra amaitzeko.

sea *Klid* (*Silencio*), orkestrada por Dvorák en 1893 a partir de una pieza para violonchelo y piano dos años anterior.

Una breve introducción orquestal (*Andante maestoso*) clausurada con pizzicatos prepara la entrada del violonchelo que, tras un pasaje a solo, entona un tema profundamente nostálgico sobre el acompañamiento *sotto voce* de la cuerda. El solista repite este motivo principal, modificado levemente, hasta la exposición de un segundo tema danzable con ecos de zortziko. Tras un nuevo episodio a solo, el violonchelo retoma el motivo protagonista para finalizar la obra con una serie de arpeggios.

Concierto para violonchelo y orquesta en la menor, opus 129

Robert Schumann - Zwickau, 8 de junio de 1810 – Endenich, Bonn, 29 de julio de 1856

Kontzertua biolontxelorako la minorrean obraren partitura azkarra, 1850eko urriaren 10etik 24ra egindakoa, Schumannen ibilbidearen azken sortze lanetako baten hasiera da, kontuan izanik konpositorearen adimena gainbeheran hasita zegoela, nabarmen gainera. Batere pentsatu gabe Dreste atzean utzi eta gero –“izugarri aspertzen gara hemen... ez dago musikari bakar bat ere”, zioen Clarak bere egunerokoan– Schumann eta bere emaztea Dusseldorferira iritsi ziren irailaren 2an, Ferdinand Hillerrek proposatuta bertan *Musikdirektor* kontratatu zuten urtean, bere aurretik Ries eta Mendelssohn zuzendari izan ziren diziplina handiko orkestra utzi zuenak, hain zuzen ere. Hala, Schumannek atzean utzi zuen Saxoniako eskualdea, bere gusturako kontserbadoregia, eta musika onaren zale handiko eta berritasun gose zen Renaniara joan zen. Hiriak ongiatorri beroa

La rápida escritura del *Concierto para violonchelo en la menor*, efectuada entre el 10 y el 24 de octubre de 1850, coincide con el inicio del último aliento creador en la carrera de Schumann, cuya salud mental mostraba desde hacía tiempo síntomas alarmantes de deterioro. Tras abandonar sin pesar alguno Dresde –“nos aburrimos aquí terriblemente... no hay ni un solo músico”, anotaba Clara en su diario– Schumann y su esposa llegaron el 2 de septiembre de ese año a Düsseldorf, donde había sido contratado como *Musikdirektor* a propuesta de Ferdinand Hiller, que abandonaba la dirección de una orquesta muy disciplinada que antes de él habían dirigido Ries y Mendelssohn. Schumann dejaba así atrás la región de Sajonia, demasiado conservadora para su gusto, por una Renania apasionada de la buena música y más abierta a la novedad. La ciudad le dedica una calurosa bien-



eman zion eta giro bare hartan, konposizio-rako egokia zen hartan –tokiko koroarekin eta orkestrarekin hartua zuen konpromisoa ez baitzen gehiegizkoa– sortu zuen obra hau, eta handik segidan, azaroa eta abendua artean trebetasun berarekin konposatutako “*Renana*” sinfonia.

Biolontxelo/orkestra konbinazioa, Haydn eta Boccheriniren aspaldiko maisulanen ondoren ia ahaztua, berpiztu egin zen partitura zoragarri eta iragarle honekin. Izan ere, Schumannen ereduak zerikusi handia izango zuen instrumentu honekiko interesaren indarberritzearekin. Eta interes horrek eman zien bide, ondorengo hamarkadetan, balio handiko orkestrarako obrei, besteren artean konpositore hauenei: Saint-Saëns, Brahms (biolina gehituta bere *Opus 120* obran), Dvořák eta, mende berrian sartuta, Elgar.

Biolontxelorako kontzertuan, Schumannek egitura original bat lantzen du, mugimendu bakarrek, eta bertan trantsizio labur batzuek gogora ekartzen dute hiru zatiko banatze tradizionala. Etenik ez duen jario musikal horrek halako rapsodia kutsua ematen dio obrari, are eta erakargarriago bihurtuz. Zuren hiru akorde luzek, hariaren tremoloaren gainean, aurreneko sailari, zabalenera, hasiera ematen diote (*Nicht zu schnell*) sonata moduan. Bakarlariek elegia kutsua duen gaia aurkezten du, ondoren sinkopatuagoa den beste batek jarraitzen diona. Abiaturako konpasak berriro agertzen dira erdiko mugimendu geldoaren trantsizioa iragartzeko (*Langsam*), *Lied* modu hirutarrean. Laburra izan arren, bere doinu bare eta kontenplaziozkoa da beharbada partituraren muina. Barillierrek dioten bezala, “instrumentua bera bere isla dela dirudi, meditazio honen edertasun baketsuaren oihartzun”. Hasierako gaia berriro agertzen da eta bide ematen dio hirugarren zati aztoratuari (*Sehr lebhaft*) rondo moduan eta amaiera aldera tarteka orkestrak laguntzen dion bakarlarieren kadentzia handiak etenda. Pau Casalsen hitzetan, hauxe da Schumannen *Biolontxelorako kontzertua* “edonork gogo biziz entzun nahiko lukeen obra onenetakoa: hasieratik bukaeraraino, musika hobezina”. Hala eta guztiz ere, egileak ezin izan zuen inoiz ere entzun, hura hil eta handik lau urtera estreinatu zelako.

venida y en esa atmósfera serena y propicia para la composición –pues sus compromisos con el coro y la orquesta locales no resultaban excesivamente absorbentes– nace esta obra, a la que pronto seguirá, compuesta con idéntica presteza entre los meses de noviembre y diciembre, la Sinfonía “*Renana*”.

La combinación violonchelo-orquesta, casi olvidada desde las ya lejanas obras maestras de Haydn y Boccherini, revivirá de nuevo con esta extraordinaria y profética partitura. El modelo schumanniano tendrá, en efecto, mucho que ver con el renacer del interés por este instrumento. Interés que hará posible, en las siguientes décadas, el nacimiento de obras concertantes tan valiosas como las firmadas por Saint-Saëns, Brahms (bien que sumado al violín en su *Opus 120*), Dvořák y, ya entrado el nuevo siglo, Elgar.

En su *Concierto para violonchelo* Schumann adopta una estructura original, la de un único movimiento en el que unas breves transiciones sirven para recordar la tradicional división tripartita. Ese flujo musical ininterrumpido contribuye a dotar a la obra de cierto aire rapsódico que aumenta su singular atractivo. Tres amplios acordes de las maderas sobre un trémolo de la cuerda abren la primera y más extensa sección (*Nicht zu schnell*), en forma sonata. El solista expone un tema de carácter elegiaco al que sigue otro más sincopado. Los compases del arranque reaparecen para señalar la transición al movimiento lento central (*Langsam*), en forma ternaria de *Lied*. Pese a su brevedad, su canto apacible y contemplativo constituye quizás el corazón de la partitura. Como señala Barillier, “el instrumento parece reflejarse en sí mismo, redoblando literalmente la apacible belleza de esta meditación”. La reaparición del tema inicial sirve como puente a la agitada tercera parte (*Sehr lebhaft*), en forma de rondó e interrumpida cerca del final por una gran cadencia del solista que la orquesta acompaña esporádicamente. En palabras de Pau Casals el *Concierto para violonchelo* de Schumann “es una de las mejores obras que uno podría desear oír: música sublime desde el principio hasta el fin”. Su autor, sin embargo, nunca pudo escucharla pues no se estrenaría hasta cuatro años después de su muerte.

2.

Sinfonía nº 4 en si bemol mayor, opus 60

Ludwig Van Beethoven - Bonn, 16 de diciembre de 1770 – Viena, 26 de marzo de 1827

Franz von Oppersdorf kondearen eskariz 1806ko uda eta udazken artean idatzia, Beethovenen *Laugarren sinfonia*, ziurrenez egile honen lan asko ez bezala, konposizio engainagarria eta kontraesanekoa da. Bere estilo sinfonikoaren eboluzioan trantsizio aldiko piezatzat hartu izana, dagozkion neurri murrizak, zikloko aurreneko bi obrekin lotura duenak, itxuraz aisea eta eskatzen duen laguntza instrumental xumea, Beethovenek aurreko hiru sinfonietarako prestatutakoa baino, lagungarri izan dira atzera begirako ariketa zuhur bat balitz bezala hartu izateko, 1804an “*Heroikoa*” obrak adierazi zuen lehenaldi nabarmenarekiko.

Lehen aldiz pribatuan interpretatua izan eta gero, 1807ko martxoan, Lobkowitz printzearen Vienako jauregian eta garai hartan ohikoak ziren kontzertu erraldoi horietako batean ere bai –beste obra batzuen artean aurreneko hiru sinfoniak eta *Kontzertua pianorako 4. zk.* barne hartzen zituena– eta jendaurrean estreinatu ondoren, urte hartako azaroaren 15ean, Vienako Hoftheater-en, *Laugarren sinfoniak* oraindik ere ez zuen kritikaren aldetik harrera handirik izan, itxuraz alaiko konposizioaren aurrean txundituta behar bada, aintzat harturik ia modu tragiko batean hasten dela, hileta martxetako ohiko estiloari uko egiten dion mugimendu geldoarekin, baina hasieratik bukaeraraino dramatismo handiko kutsuarekin. Azken bi mugimenduetako ohiko arintasuna erritmoen oposizio eta gainjartzeek eteten dute zeharo, benetan gogorra den *Finalean* amaitzeko.

Hasieratik, Beethovenen *Sinfonia si bemol maiorrean* obrak argi eta garbi zehazten ditu aurreko sinfoniarekiko distantziak. Hasierako mugimendua sarrera geldo eta luze batekin abiatzen da, *Adagio*arekin –Mahlerrek bere *Lehenengo sinfoniaren* hasieran ondo asko bere egindakoa–, eta ez du batere zerikusirik *Heroikoaren* akorde bortitzekin, baina bai,

Escrita entre el verano y el otoño de 1806 como resultado de un encargo del conde Franz von Oppersdorf, su dedicatario, la *Cuarta Sinfonía* de Beethoven es, como quizá pocas obras de su autor, una composición engañosa y contradictoria. Considerada como una pieza de transición en la evolución del estilo sinfónico de su autor, lo reducido de sus dimensiones, que la emparentan con las dos primeras obras del ciclo, su carácter aparentemente desenfadado y la modesta plantilla instrumental requerida, menor que la dispuesta por Beethoven para las tres sinfonías precedentes, han propiciado que fuera contemplada como una prudente mirada hacia atrás respecto al paso de gigante que en 1804 supuso la “*Heroica*”.

Años después de su primera ejecución privada, en marzo de 1807, en el palacio vienés del príncipe Lobkowitz y en uno de esos mastodónticos conciertos al uso de la época –que incluía, entre otras obras, las tres primeras sinfonías y el *Concierto para piano nº 4*– y de su estreno público, el 15 de noviembre de ese año, en el Hoftheater de Viena, la *Cuarta Sinfonía* continuaba sin suscitar la aceptación unánime de una crítica probablemente desconcertada ante una composición que aparenta ser jovial y comienza de un modo casi trágico, con un movimiento lento que renuncia al estilo habitual de las marchas fúnebres pero está atravesado de principio a fin por un intenso dramatismo y en donde la ligereza tradicional de los dos últimos movimientos es dinamitada por oposiciones y superposiciones rítmicas que concluyen en un impetuoso *Finale* de exacerbada rudeza.

Ya desde su inicio, la *Sinfonia en si bemol mayor* de Beethoven marca claramente las distancias con la sinfonía precedente: el movimiento inicial debuta con una extensa introducción lenta, *Adagio* –sabiamente asimilada por Mahler en el comienzo de su *Primera Sinfonia*–, que nada tiene que ver con los agresivos

eta nahikoa gainera, egilearen Lehenengo eta Bigarren sinfonien hasierekin eta haren maisu Haydnen batzuekin. Bonneko musikariak bere *Zazpigarren sinfonia* berriro ere erabilitako baliabidea. Piztutako jakin-min handiaren ondoren, gogor garatzen da ondorengo *Allegro vivace*, bultzada erritmiko bikainari esker. Bigarren mugimendu zoragarrian (*Adagio*), lirismo piztua, Berliozentzat hauxe adierazten duena “inoiz imajinario gori-gorienak amets izan dezakeen guztia gainditzen du darion xamurtasunagatik eta sentiberatasun puru-puruagatik”, baliteke izatea Beethovenen eta Therese von Brunsvik kondesaren arteko us-tezko eta laster etendako amodio historiaren isla. Rolland *nobeleskoak* hau idatzi zuen askoz ere geroago: “Lehoia maiteminduta dago eta ezkutatuta ditu atzaparrak. Baina, suaren, fantasiaren eta xamurtasunaren azpian haren indar beldurgarria, umore aldakorra eta aztoratua sumatzen dira”. Aurreneko biolinek, klarineteek eta fagotek jotako *fortissimo* hasierak hirugarren mugimenduari ematen dio bide: *Allegro vivace*, scherzo bikoitz irribarretsu eta alaia, benetakoa eta bozkariozkoa, bi triok lagunduta, amaierako mugimendu laburraren bidea prestatzeko, *Allegro ma non troppo* trinko, obsesibo eta ia deabrutsua delarik, *perpetuum mobile* baten antzera, harien bat egitea eta bertuosismoa proban jarritz.

Izan ere, Beethovenen *Laugarren sinfonia* sendo eta argiak izugarritzko itzala izan zuen erromantikoen aurreneko belaunaldian. Schumannentzat, “neska gazte greko liraina iparraldeko bi gizon erraldoiren erdian” definitu izan zuenarentzat, estilo eredu bat zen, bere *Lehenengo sinfonia* idazterakoan eragina izan zuena. Mendelssohnek, berriz, Leipzigecko Gewandhaus orkestraren zuzendari gisa izan zuen bere lehenengo kontzerturako aukeratu zuen, 1835eko urriaren 4rako. Beethovenen *Laugarren sinfonia* honen egoera kronologiko zailak bakarrik, inguratuta dituen bere bi senide zahar galenen artean (itxuraz bakarrik), oztopatu du betidanik obra hau ikuspegi erreal eta objektiboago batetik begiratzea. Konposatu zuenetik bi mende igaro direnean, inolako zalantzarik ez dago lan gorena dela, duen hain izaera berezi, ustekabeko eta ezo-hikoagatik.

acordes de la *Heroica* y sí bastante con los inicios de las sinfonías *Primera* y *Segunda* del autor y de algunas de su maestro Haydn. Un recurso que será empleado de nuevo por el músico de Bonn en su *Séptima*. Tras la tensa expectativa suscitada se desarrolla implacable el subsiguiente *Allegro vivace*, alimentado por un formidable impulso rítmico. El encendido lirismo contenido en el bellissimo segundo movimiento (*Adagio*), que para Berlioz “sobrepasa todo lo que la imaginación más ardiente podrá jamás soñar en cuanto a ternura y pura voluptuosidad”, es quizá reflejo del presunto noviazgo, pronto truncado, entre Beethoven y la condesa Therese von Brunsvik. El *novelesco* Rolland escribirá mucho después: “El león está enamorado y esconde las garras. Pero, bajo el juego, la fantasía y la ternura se vislumbra su temible fuerza, su humor caprichoso y colérico”. Un inicio en *fortissimo* a cargo de los primeros violines, clarinetes y fagotes señala el comienzo del tercer movimiento, *Allegro vivace*, un verdadero y exultante doble scherzo risueño y festivo, acompañado de dos tríos, que prepara el camino hacia el breve movimiento conclusivo, un contundente, obsesivo y casi diabólico *Allegro ma non troppo* que, a la manera de un *perpetuum mobile*, pone a prueba la conjunción y el virtuosismo de la sección de cuerdas.

No sin razón, la afirmativa y luminosa *Cuarta* de Beethoven sedujo poderosamente a la primera generación de románticos. Schumann, que la definió como “una esbelta joven griega en medio de dos gigantes nórdicos”, la consideraba un modelo de estilo que influiría en la escritura de su *Primera Sinfonia*. Mendelssohn, por su parte, la eligió para su primer concierto como director de la orquesta de la Gewandhaus de Leipzig, el 4 de octubre de 1835. Únicamente la delicada situación cronológica de esta *Cuarta Sinfonia* beethoveniana, entre dos cumbres absolutas como son las hermanas (sólo aparentemente) mayores que la rodean, ha dificultado desde siempre una más real y objetiva apreciación de la misma. A dos siglos de su composición no debe cabernos la menor duda de encontrarnos ante una obra cimera por su carácter profundamente singular, imprevisible y anticonvencional.

Musika argudio

La música como pretexto

“Chapí, Breton, Chueca eta Monasterioren garaikide, Zubiaurrek, haiekin batera, Espainiako konpositore erromantikoen bigarren belaunaldia deitu izan zaiona osatu zuen.

Contemporáneo de Chapí, Bretón, Chueca y Monasterio, Zubiaurre formó con ellos lo que se ha denominado la segunda generación de compositores románticos españoles.”

P. Sojo

“Giza bihotzaren benetako poeta da Schumann. Berarekin badirudi forma ez dela existitzen.

Schumann es el verdadero poeta del corazón humano. Con él la forma parece no existir.”

E. Chausson

“Sinfonia si bemolean, *Laugarrean*, Beethovenek zeharo bazterten ditu oda eta elegia estilo goratuagoari eta ez hain goibelari berriro heltzeko, baina beharbada bigarren sinfoniari darion kutsu poetiko berarekin, ordea.

En la sinfonía en si bemol, la *Cuarta*, Beethoven abandona enteramente la oda y la elegía para retornar al estilo menos elevado y menos sombrío, pero no menos poético, quizá, de la segunda sinfonía.”

H. Berlioz

Gure iradokizun diskografikoa

Nuestra sugerencia discográfica

V. Zubiaurre: Ecos de Oiz

Roman Jablonski,
biolontxelo/violonchelo.
Orquesta Sinfónica de
Euskadi.
Zuz./Dir.: Juan José Ocón.
Claves, 2010.

R. Schumann: Concierto para violonchelo

André Navarra,
biolontxelo/violonchelo.
Orquesta Filarmónica
Checa.
Zuz./Dir.: Karel Ančerl.
Supraphon, 1964.

L.V. Beethoven: Sinfonía nº 4

Orquesta del
Estado de Baviera.
Zuz./Dir.:
Carlos Kleiber.
Orfeo, 1982.

Jean-Christophe Spinosi

zuzendaria
director



Korsikan jaioa eta Britainian bizi delarik, Jean-Christophe Spinosi ibilbide nabarmena burutu du biolinjotzaile eta zuzendari bezala. Ensemble Matheus taldearen sortzaile eta zuzendaria, europar zein amerikar areto eta jaialdi garrantzitsuetan zuzendu du. Azken lau denboraldietan *La pietra del paragone*, *Véronique* eta *Norma* zuzendu ditu Pariseko Châtelet-en. *Così fan tutte* zuzendu du Théâtre des Champs-Élysées delakoan eta *Mesías* obraren muntaia bat Theater an der Wien antzokian. Duela gutxi, *Alcina* zuzendu du Paris, Viena eta Aix-en-Provence-en, *La fida ninfa* Europan barrena eginiko bira batean eta *Txirula miragarria* Vienan. Zuzendari gonbidatu gisa, Bostongo Haendel eta Haydn Elkartearekin, Japoniako Orkestra Filarmonikoarekin eta Verbier-eko Jaialdiko Orkestrarekin lankidetzan aritu da. Ensemble Matheus taldearekin Salzburgeko Pazko Jaialdian aritu ostean, bertako Udako Jaialdian debuta egin zuen Mozarteum-eko Orkestra zuzenduz.

Nacido en Córcega y residente en Bretaña, Jean-Christophe Spinosi desarrolla una brillante carrera como violinista y director. Fundador y director del Ensemble Matheus, ha dirigido en las más importantes salas y festivales europeos y americanos. Durante las últimas cuatro temporadas ha dirigido en el Châtelet de Paris *La pietra del paragone*, *Véronique* y *Norma*. Ha dirigido *Così fan tutte* en el Théâtre des Champs-Élysées y una escenificación del *Mesías* en el Theater an der Wien. Recientemente dirigió *Alcina* en París, Viena y Aix-en-Provence, *La fida ninfa* en gira europea y *La flauta mágica* en Viena. Como director invitado, Spinosi ha colaborado con la Sociedad Haendel y Haydn de Boston, la Orquesta Filarmónica de Japón y la Orquesta del Festival de Verbier. Tras participar en el Festival de Pascua de Salzburgo con el Ensemble Matheus, debutó en el Festival de Verano de dicha ciudad dirigiendo a la Orquesta del Mozarteum.

Johannes Moser

biontxeloa
violonchelo



Johannes Moser Munich-en jaio zen 1979 eta zortzi urte zituela hasi zen biolontxelo ikasten. 1997an David Geringas-en ikasle izan zen. Davidoff (Riga, 2000) eta Mendelssohn (Berlin, 2001) lehiaketetan lehenbiziko sariak merezi izan zituen eta 2002an Moskuko Tchaikovsky Lehiaketan garaile suertatu zen eta *Rokoko bariazioak* obraren bere interpretazioarengatik Sari Berezia irabazi zuen. Moser munduko orkestra nagusienekin aritu da bakarlarri gonbidatu gisa: Chicagoko Orkestra Sinfonikoa, New Yorkeko Orkestra Filarmonikoa, Cleveland-eko Orkestra, Los Angeles eta Munich-eko Filarmonikoa, Berlingo Orkestra Sinfonikoa, Bavara Irratiko Orkestra Sinfonikoa, Amsterdango Concertgebouw, Londreseko Sinfonikoa eta abar. Pierre Boulez, Riccardo Muti, Herbert Blomstedt, Lorin Maazel, Valery Gergiev, Zubin Mehta, Franz Welsler-Möst, Christian Thielemann eta Paavo Järvi-rekin batera aritu da. Berlingo Orkestra Filarmonikoaren 2011/2012 denboraldia irekiko du, Schumannen *Kontzertua* interpretatuko duelarik.

Johannes Moser nació en Múnich en 1979, estudiando violonchelo desde los ocho años. En 1997 fue alumno de David Geringas. Ganador de los primeros premios en los Concursos Internacionales Davidoff (Riga, 2000) y Mendelssohn (Berlín, 2001), en junio de 2002 ganó el Concurso Tchaikovsky de Moscú y fue Premio Especial por su interpretación de las *Variaciones Rococó*. Moser ha actuado como invitado con las mejores orquestas del mundo: Sinfónica de Chicago, Filarmónica de Nueva York, Orquesta de Cleveland, Filarmónica de Los Ángeles, Filarmónica de Múnich, Sinfónica de Berlín, Sinfónica de la Radio Bávara, Concertgebouw de Ámsterdam, Sinfónica de Londres, etc. Ha tocado junto a Pierre Boulez, Riccardo Muti, Herbert Blomstedt, Lorin Maazel, Valery Gergiev, Zubin Mehta, Franz Welsler-Möst, Christian Thielemann y Paavo Järvi. Inaugurará la temporada 2011/2012 de la Filarmónica de Berlín interpretando el *Concierto* de Schumann.

www.johannes-moser.com

Gure Orkestraren jarduerari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero gurekin harremanetan jar zaitezke. Si desea conocer más detalles acerca de la programación de nuestra Orquesta contacte con nosotros.



943 01 32 32 | www.euskadikoorkestra.es

Miramón Pasealekua, 124 • 20014 Donostia-San Sebastián

Hurrengo abonu kontzertua / Próximo concierto de abono

Ekainak
13-14
junio

Düsseldorfer Symphoniker
Orkestra gonbidatua / Orquesta invitada

Andrey Boreyko
Zuzendaria / Director

Khatia Buniatishvili
Pianoa / Piano

J. Brahms
Concierto para piano
y orquesta nº2

R. Schumann
Sinfonía nº2

Miramongo Matinéeak / Matinéas de Miramón

Maiatzak
14
mayo

XAENAMI. Hari-laukotea/Cuarteto de cuerda
M. Ravel eta C. Debussyren kuartetoak
Cuartetos de M. Ravel y Claude Debussy

Maiatzak
28
mayo

EASO ARAOZ GAZTE ABESBATZA

Musika erlijiosoa eliza barruan eta elizatik at
Música religiosa dentro y fuera del templo

klasikaT

Ekainak
6
junio

SWING GAUA/NOCHE DE SWING

Auditorio Kursaal Auditorioa, 20.00h
Sarrerak jada salgai/Entradas ya a la venta

Salneurri bakarra
precio único: 15€

Orkestra abian jarri aurretik / La Orquesta se va de gira

Ekainak
15
junio

Euskadiko Orkestrak Alemanian barrena burutuko duen biran interpretatuko duen egitaraua eskainiko du. Anfiteatro eta balkoirako sarrerak eskuragarri. Salneurri bakarra 12€. Salgai maiatzaren 20tik aurrera telekutxa, Servikutxa, www.kutxa.net eta Antzokiko leihatilan.

Teatro
Victoria Eugenia
Antzokia,
20.00h

La Orquesta de Euskadi interpretará el programa que llevará a su próxima gira a Alemania. Entradas disponibles en anfiteatro y balcón. Precio único 12€. A la venta a partir del 20 de mayo en Telekutxa, Servikutxa, www.kutxa.net y en la taquilla del Teatro.

Sarreren
salmenta
Venta de
entradas



SERVIKUTXA


943 00 12 00

www.kutxa.net

Taquilla **KURSAAL** leihatila
Días de actuación de la Fundación Kursaal

MATINÉES: Taquilla Sede
Día del concierto a partir de las 10:30h.

www.euskadikoorkestra.es



La energía de la música

En la música hay un gran intercambio de energía. En Ingeteam vemos en este concierto de la Orquesta Sinfónica de Euskadi la representación perfecta de nuestra labor. La fusión entre innovación y tradición, esa integración entre los distintos elementos de la orquesta que componen una gran obra, capaz de llegar a la sociedad. La técnica unida al arte.

Ingeteam. El arte de la ingeniería
www.ingeteam.com

Ingeteam